

# AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

## AURKIBIDEA:

1. ELAK EUSKO JAURLARITZARI EXIJITU DIO EZ DITZALA ETXEBIZITZARAKO GIZARTE-PRESTAZIOAK MURRIZTU
2. SINATURIKO KONTRATUEN ERDIA HILABETE BAINO IRAUPEN MURRITZAGOA DUTE
3. GIZON-EMAKUMEEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK SEME-ALABAK IZATEAN HANDITZEN DIRA
4. POBREZIA ENERGETIKOA, ERREALITATE HEH-AN
5. PROPOSAMENA: PROPOSAMENA: PENTSIO DUINAK: 1.080€ HILEKO. SINATU!

**1. ELAK EUSKO JAURLARITZARI EXIJITU DIO EZ DITZALA ETXEBIZITZARAKO GIZARTE-PRESTAZIOAK MURRIZTU****I. AURREKARIAK: ETXEBIZITZA LEGEA ETA EUSKO JAURLARITZAREN 2016KO AURREKONTUAK****α) 2015eko Etxebizitza Lege txarra**

lazko ekainaren 18an Eusko Legebiltzarrean EAEko 3/2015 Etxebizitza Legea onartu zen, EH Bildu, PSE-EE eta UPyDren aldeko botoaz. Legearen jatorria PSE-EEK 2011n aurkeztutako lege-proiektua izan zen.

Gizarte-mugimenduek betidanik aldarrikatu izan zuten Etxebizitza Lege bat beharrezkoa zela. ELAk ere aspaldidanik eskatu izan du bizileku duin bat izateko eskubidea legez bermatzea, administrazioei galdegiteko eskubidea izan zedila, eta horretarako botere publikoek premia eta lehenbailehen hartu behar zituzten erabakiak (politika publikoen funtsezko aldaketa), etxebizitzaren xede soziala ziurtatze aldera.

Legea onartuta, bera sustatu zuten taldeek esan zuten balio handia zuela, hainbat hamarkadako hutsunearen ondoren Etxebizitza Lege bat izateko premiari erantzuten omen baitzion; gainera, esan zuten, etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzen zuten.

ELAk 2015eko uztailaren 28an kaleratu zuen bere "EAEko Etxebizitza Legearen Balorazioa", Azterketa bulegoak egindako txosten baten bidez (orduko eduki nagusiak ondoko eranskinean jaso ditugu).

Balorazio hartan ELAk zioen legeak ez zuela etxebizitza bat izateko eskubidea bermatzen. Legearen arabera, eskubidea oso mugatuta

geratzen zen, hainbat arrazoi medio:

- Legeak dio eskakizun jakin batzuk betetzen dituzten herritarrek administrazioari eskatu ahal izango diotela alokairuko etxebizitza bat, eta dagokion administrazioak derrigor eskaini behar diola, edota, hala ez bada, prestazio ekonomikoen sistema bat sortu beharko duela (zeina legeak ez zuen zehazten).
- Eskubidea izateko eskakizunak ere ez ziren Legean zehazten. Behar egoera izateko, zeina eskubidea aitortzeko baldintza zen, hainbat eskakizun bete behar ziren, esaterako gutxieneko eta gehienezko diru-sarrera maila. Legeak ez zituen arautzen aipatutako eskakizunak, eta hauek arautegiak garatzearen zain geratu ziren.
- Alegia, Legeak Eusko Jaurlaritzaren esku, legearen beraren aurka agertu zenaren esku, utzi zuen pertsonen eskubideak zehazteko urratsa (erabakitzea benetan eskubidea nork duen, eta prestazio ekonomikoaren zenbatekoa zein izango zen).
- Arautegia garatu bitartean legean eskakizun batzuk finkatzen ziren eskubide subjektiboaren jabe izateko: diru-sarrerak, bizikidetz-unitateko kide kopurua eta alokairu eskatzaileen erregistroko antzinatasuna:
  - 2016an: bizikidetz-unitateak 3 kide edo gehiago izatea, urtean 15.000 eurotik beherako diru-sarrerak eta gutxienez lau urtez izena emanda egotea alokairuko etxebizitza eskatzeko erregistroan.
  - 2017an: 2016ko kolektiboari gehitzen zaizkie 2 kideko bizikidetz-unitateak,

12.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenak eta gutxienez lau urtez izena emanda daudenak alokairuko etxebizitza eskatzeko erregistroan.

- 2018an: aurreko bi taldeez gainera eskubidea aitortuko zaie kide bakarreko bizikidetzak-unitateei, 9.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituztenei eta gutxienez lau urtez alokairuko etxebizitza eskatzeko erregistroan izena emanda daudenei.

Orduan esan genuen eskakizun hauek (ekonomikoak eta alokairuko etxebizitza eskatzeko erregistroan izena emanda egoteari buruzkoak) bizilekua izateko eskubidea urratuta zuen jende gehiena baztertzeko zutela eta, irizpideak hain zorrotzak baziren, zegoeneko Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) eta Etxebizitzako Prestazio Osagarria (EPO) ez zuen ia inork ezin izango zuela araudi berriaren onura izan eta eskubidea gauzatu.

Gainera, ELAk legerari buruzko ondorioetan honakoa esan zuen:

1. Talde politiko batek ere ez zuen parte hartze sozialerako aukerarik eman; klase politikoaren aldetik jokabide hau gero eta sarriago gertatzen da.
2. Legea babestu zuten taldeek egindako propaganda gorabehera, testuak ez zuen etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzen. Beraz, ez zen hobekuntza handirik lortzen aurreko egoeraren aldean.
3. Aurrekontu nahikorik eta bestelako zerga-politika bat egin gabe honelako legeak ezerezean geratzen dira. Etxebizitzarako zuzkidurak aurrekontuetan urriegiak izan dira, beheranzko joerarekin gainera. Eusko Jaurlaritzak etxebizitzara 2016ko ekitaldirako 108 milioi euro bideratuko ditu, 2009an exekutatu ziren 217,4

milioien erdia baino gutxiago.

4. Eusko Jaurlaritzak erabakitako aldaketen aurkako jarrera adierazi zuen. Etxebizitzako politikan duen lehentasuna (Etxebizitza Plana, aurrekontuak, jabetza sustatzea, administrazioen betebeharrak eta beharra duten pertsona eta familien eskubideak ez aitortzea, etab.) aberasten direnen eta jendearen beharrezanekin negoziatzea egiten dutenen alde egitea izan da.

**b) Eusko Jaurlaritzaren 2016ko aurrekontuak: Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) ezkutuka indargabetu da**

Etxebizitza Legea onartu eta gero ELAk galdegin zion Jaurlaritzari argi zezala ea hura aplikatzeko asmoa ote zuen. Orduan, ohiko moduan, ez genuen erantzunik jaso. Hau Eusko Jaurlaritzaren 2016ko aurrekontuek eman ziguten.

EAJk eta PSE-EEk bozkatu zuten Eusko Jaurlaritzaren 2016ko aurrekontu-legearen zazpigarren xedapen gehigarriak dioenez, *“etxebizitzarako prestazio osagarriarako aurreikusitako erregimena indarrean egongo da Etxebizitzari buruzko Legearen arautegixedapenak, modu subsidiarioan prestazio ekonomikoaren sistema bat ezartzeari buruzkoak, indarrean sartu arte”*.

Hots, Etxebizitzarako prestazio ekonomiko berriari buruzko arautegia indarrean sartzeak EPOa indargabetzea esan nahiko luke. Honek eragingo lieke une horretatik aurrera eskubidea eskatzen dutenei eta orain EPOa jasotzen ari direnei (aldi baterako jasoko lukete, baina denbora mugatuz).

Xedapen gehigarri hau sartzea ezkutuka erabaki zen, publizitaterik gabe, gizarteari

horren berri eman gabe. Legebiltzarreko eztabaidan inor ez zen konturatu xedapen gehigarri hau zein larria zen.

## **II. ETXEBIZITZA DUIN ETA EGOKIA LEGEZ OKUPATZEKO AUKERA IZATEKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOARI BURUZKO DEKRETU-PROIEKTUA**

2016ko urtarrilaren erdialdera Eusko Jaurlaritzak bere Irekia webgunean "Etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko aukera izateko eskubide subjektiboari buruzko dekretu-proiektua"ren zirriborroa argitaratu du. Hainbat puntu kezkarri dago bertan:

- Prestazio berri bat sortzen da (Etxebizitzako Prestazio Ekonomikoa, EPE), eta erabakitzen da bateraezina izango dela EPOarekin edo etxebizitzaren errenta ordaintzeko Gizarte-Larrialdietarako Laguntzekin (GLL).
- Eskubidea mugatuta geratzen da: legearen xedapen iragankorretan ezarritako eskakizunak betetzen dituen jendeari baino ez zaio aitortuko (soilik alokairuko etxebizitza eskatzaile gisa lau urtez izena emanda egotea, eta dokumentu honetako aurreko atalean aipatutako diru-sarrera eskala nahiz bizikidetz-unitateko kide kopurua). Hau da, dekretu zirriborroak Legean jasotako gutxienekoa besterik ez du arautzen (legez kanpokoa bailitzateke eskubideak murriztea).
- Aitortzen den eskubidea iruzkin orokor bat da, zeinaren arabera administrazioek kolektibo horren esku jarriko dituen erabilgarri dauden etxebizitzak (halakorik badago), errenta edo kanon baten truke. Administrazioak ez dute derrigor etxebizitza babestuen

parkea zabaldu beharrik. Etxebizitzarik ez balego, hilean 250 euroko prestazio ekonomiko bat arautzen da bizilekuaren errenta ordaintzeko, aurrez "bizileku ohiko eta iraunkorra den etxebizitzako errentamendu-kontratua" aurkeztu beharko delarik.

Beraz, dekretua onartzeak EPOa indargabetuko luke eta ondorio oso larriak izango lituzke:

- Gizarteko pertsonarik behartsuenen eskubideei egindako murrizketa latza eta eraso argia litzateke. Prestazio berria jaso ahal izateko eskakizunak egun EPOan indarrean daudenak baino askoz zorrotzagoak dira. Esaterako,
  1. EPOa eskatzeko ez da beharrezkoa Etxebideko erregistroan antzintasuna izaterik (aurrerantzean lau urte eskatuko dira, eta soilik alokairuko etxebizitzarako).
  2. 3 kide baino gutxiago dituzten bizikidetz-unitateak ez dira EPOtik kanpo geratzen.
- Datu batek agerian uzten du legean aitortutako eskubide berria oso eskasa dela: testua indarrean sartu denetik 50 familiak baino ez dute eskatu eskubidea aitortu diezaietela.
- Horrenbestez, EPOa baino askoz jende gutxiagok jasoko du prestazio berria. 2015ean ia 29.000 familiak jaso dute uneren batean EPOa. Hauetako gehienak baztertuta geratuko liriateke arau berriekin. Beste 7.000 familiak jaso zuten iaz etxebizitzarako GLL.

Hauetako gehienek ez lituzkete beteko prestazio berrirako ezarri diren eskakizunak.

- Eusko Jaurlaritzak 2016rako erabaki duen aurrekontua argigarria da murrizketa zenbatekoa izan den ikusteko: EPorako 86,5 milioi euro zeuden, eta prestazio berrirako, aldiz, 2 milioi besterik ez. Helburua da orain arte baino askoz gutxiago gastatzea, eta hau jenderik apalenaren eskubidearen lepotik gauzatu nahi dute.

Gainera, dekretu-zirriborroaren edukiak beste bi ondorio lituzke:

- Kalte egingo lieke ere Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL) jasotzen dituztenei. Milaka bizikidetzak unitate EPorik gabe utziz gero askoz eskabide gehiago izango dira alokairurako GLLan. Gogoratu beharra dago GLLak (DBE edo EPO ez bezala) ez direla eskubide bat, eta aurrekontuetan aurrez ezarritako kopuru mugatu bat dagoela horietarako (2016an 23 milioi euro). Dirua amaituz gero, GLLak ez dira kobratzen. Horregatik, diru hori askoz jende gehiagoren artean banatu beharko litzateke, eta hori izatez murrizketa bat da GLLak jasotzen dituztenentzat (diru gutxiago jasoko dute, edo agian bat ere ez).
- Kudeaketa konplikatu egingo da. Orain arte DBE eta EPOa Lanbideren esku zeuden, eta GLLak, gizarte-zerbitzuen esku. Prestazio berria, aldiz, Etxebizitza sailak emango luke (eta ikusteko dago prestazio hau kudeatzeko gaitasunik benetan ba ote duen). Dena dela, beste leihatila bat litzateke, hainbat badirenean, gizarte-prestazioak jaso

beharrean daudenentzat.

### III. ONDORIOAK

- ◆ Onartuz gero, dekretuak beste murrizketa latz bat ekarriko du Eusko Jaurlaritzaren aldetik; baina gainera pobrezia ere areagotu egingo da kolektiborik behartsuenei egingo dielako kalterik handiena.
- ◆ ELAk Eusko Jaurlaritzari exijitzen dio etxebizitzako dekretu-zirriborroa erretira dezala eta ez dezala Etxebizitzarako Prestazio Osagarria indargabetuko duen erabakirik hartu.
- ◆ 2015ko uztailean egin genuen Etxebizitzaren Legeari buruzko balorazioa berresten dugu. Lege txar bat izan zen, eta aurrerapauso handi gisa saldu nahi izan zuten, benetan halakorik ez bazen ere. Bestelako Etxebizitza Lege bat behar da, gai honetan erabateko aldaketa ekarriko duena, eta berarekin batera, aurrekontuetan sail honetarako zuzkidurak ere itxurazko igoera izan behar du.

\* Txosten hau argitaratu eta egunetara Auzitegi Konstituzionalak Etxebizitza Legearen zati bat kautelarki geldiaraztea erabaki zuen.

### 2. SINATURIKO KONTRATUEN ERDIA HILABETE BAINO IRAUPEN MURRITZAGOA DUTE

2016an Hego Euskal Herrian egiten ari diren lan kontratuak guztiz prekarioa dira. Aurtengo lehen hiru hilabeteetan egin diren kontratuak aldi-baterakoak izan dira ia erabat (%92,5). Gainera, kontratu guztien %35,6 partzialak izan dira (herena baino gehiago, beraz, lanaldi

murriztuko enpleguak izan dira).

Prekarietatearen bi adierazle horiek (tenporalitatea zein partzialitatea) okerragoak dira emakumezkoen kasuan, sinatu dituzten kontratuen %94 aldi-baterakoak izan baitira eta %46,4 partzialak (gizonezkoenean, ordea, %91 eta %24,2 izan dute, hurrenez hurren).

Sinaturiko kontratu horien luzaerari dagokionez, taulak erakusten duenez, gehienak hilabete baino iraupen murriztagoak izan dira (%47,4). Baina are gehiago, egindako zazpi kontratutik batek asko jota astebeteko iraupena izan du. Lan egonkorrari dagokionez, soilik %8ak izan du urtebete baino iraupen luzeagoa (mugagabeak barne). Aipatzekoa da kontratuen ia herenak ez duela zehaztua luzaera nahiz eta aldi-baterakoak diren, horrek ziurgabetasuna sortzen duelarik.

*Lan kontratuen luzaera Hego Euskal Herrian,  
2016ko lehen hiruhilekoan*

Kontratuaren luzaera	Kontratuak guztira	Kontratuak ehunekotan
Zehaztu gabe	88.000	%31,1
1-7 egun	38.700	%13,7
7-30 egun	95.400	%33,7
1-6 hilabete	32.100	%11,3
6 hilabete baino gehiago	7.100	%2,7
Mugagabea	21.100	%7,5

Iturria: SEPE

2016ko lehen hiru hilabeteetan egin diren kontratuen luzaera ikusirik eta ia guztiak tenporalak eta herena partzialak izanda, agerian dago enplegua, sortu baino dagoena zatitan banatu egiten dela; horrela, langile berberak kontratu ugari sinatu ditzake inolako enplegurik sortu gabe. Hainbeste alditan aipatu diguten 2008ko krisitik ia zortzi urte igaro ondoren, langileon bizi baldintzak okertzen jarraitzen dute botere politiko eta

ekonomikoek hala nahi dutelako. Joera hori errotik aldatzeko borrokan jarraituko dugu.

### 3. GIZON-EMAKUMEEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK SEME-ALABAK IZATEAN HANDITZEN DIRA

Gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak oso sakonak dira oraindik ere 28 estatuek osotzen duten Europar Batasunean. Diskriminazioa alor ugarian ematen da, baita lan munduan ere. Horren adibide dira genero arteko soldaten tartea eta lan partzialean dabilzanan ehunekoa.

Soldaten ikuspuntutik, genero arteko tartea %16 da Europar batez bestean, 2014ko azken datuaren arabera. Hau da: gizon baten diru-sarrerara euro batekoa izanik, emakume batena 84 zentimokoa da. Estatu askotan (Alemania, Austria, Txekia, Estonia eta Eslovakian) ezberdintasun hori %20tik gora dago, eta kasu gutxi batzuetan %5etik behera (soilik Malta eta Eslovenian). Estatu espainiarrean ezberdintasun hori %19 da eta Estatu frantziarrean %15.

Partzialitateari dagokionez, ukatu ezina da emakumeek pairatzen dutela batez ere prekarietate mota hau etxean eta zaintzan egiten duten lan erraldoiaren eraginez. 2015eko azken hiruhilekoan partzialitate tasa %19,5 zen Europar Batasunean, gizonena %8,8 eta emakumeena %32 izanda.

Baina partzialitate tasa horrek asko egiten du gora emakumeen kasuan seme-alaba kopurua handitzen den heinean, gizonekin gertatzen denaren kontra. Grafikoak erakusten duen bezalaxe (25 eta 49 urte arteko pertsonak aintzat harturik), ondorengorik gabe gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna partzialitate tasan %11,8 da; seme-alaba batekin, tartea %26,2ra igotzen da; 2 seme-alabarekin, %34,4ra; eta 3 edo gehiagorekin

%38,1era hazten da tartea.

*Enplegu partzialaren ehunekoia sema-alaba kopuruaren arabera, EB-28 2014an*

Seme-alaba kopurua	Emakumeak	Gizonak	Ezberdintasuna
0	%20	%8,2	11,8 puntu
1	%31,3	%5,1	26,2 puntu
2	%39,2	%4,8	34,4 puntu
3 edo gehiago	%45,1	%7	38,1 puntu

Iturria: Eurostat

Neurririk hartu ezean, ezberdintasun honek bere horretan jarraituko du denbora luzez. Horregatik eta Europako biztanleriaren zahartze prozesuagatik, inoiz baino beharrezkoagoa da berdintasuna eta belaunaldien arteko erreleboa bermatzea.

#### 4. POBREZIA ENERGETIKOA, ERREALITATE HEH-AN

Pobrezia maila eta gizartean dauden ezberdintasun ekonomikoak hazten ari dira azken urteotan. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen gertatzen den bezalaxe azken 30 urteetako mailarik altuenean dago pobrezia eta aberats eta txiroen arteko tartea.

Haurren pobrezia neurtzen duen UNICEFek dioenez (haurren familiako errentaz gain hezkuntza, osasuna eta haurren asebetetze maila kontuan hartuz), Estatu espainiarrean haurren egoera latza da eta okerrera egin du 2010 eta 2013 artean egin diren murrizketen ondorioz (6.300 milioi eurotan gutxitu baitzen haurrei zuzendutako gastu publikoa): egun, haurren %36 pobrezia edota bazterte arriskuan dago. Gainera, erakundearen esanetan "ongizate, segurtasun eta aukeretatik

kanpo geratzen dabil gero eta biztanleriaren zati handiagoa".

Bestalde, gutxitan aipatzen den energia pobrezia buruzko azterketa ere argitaratu berri du ACA ingurumen zientzien erakundeak. Horren arabera, energia pobrezia biztanleriaren zati esanguratsu batek pairatzen du. Nahiz eta zailtasun asko dauden neurketa egiteko, Hego Euskal Herrian 242.000 pertsonen errentaren %10 baino gehiago bideratu behar dute energiaren kostuei aurre egiteko, taulak irudikaturik dagoena datua.

*Energia pobrezia neurgailuak, Hego Euskal Herria 2014*

Neurgailua	Pertsona kopurua	Populazioaren %
Errentaren %10 baino gehiago gastatu energian	242.000	%8,6
Neguan etxea ezin mantendu tenperatura egokian	138.000	%4,9
Energia gastuen ordainketetan atzerapenak	121.000	%4,3
Hezetasunak, itoginak edota usteldurak izatea etxean	348.000	%12,3

Iturria: ACA eta INE

Horrez gain, 138.000 lagunek ezin dute etxearen tenperatura maila egoki batean mantendu urte osoan zehar eta 121.000 atzeratu egin dira energia gastuak ordaintzerako orduan. Datu handiena, 348.000 pertsonen pairatzen dutena, etxearen egoerari buruzkoa da: hezetasunak, itoginak edota usteldurak dituzten pertsonen kopurua HEH biztanleriaren zortzirena delarik (%12,3).

Ematen diren proposamenak ugari badira ere (gobernu maila ezberdinei, energia enpresei eta bestelako erakundeei luzatzen baitzaizkie), aipagarrienak ondorengoak dira: etxebizitzaren birgaitze energetikoa burutzea, gizarte bonoa beharretara egokitu eta diru-laguntzak handitzea, hornidura eteteak ekiditea, mikro efizientzia baliatzea, energia eta kontsumo formakuntza sustatzea, eta informazioa eta estatistikak bildu eta erabiltzea.

Horregatik, sinadura bilketan parte-hartzeko gonbitea luzatzen dizuegu, pentsio duinak eskatzeko, geroa bermatze aldera sistema propio baten alde.

## **5. PROPOSAMENA: PENSIO DUINAK: 1.080€ HILEKO. SINATU!**

Hego Euskal Herriko 300.000 pentsionista hilean 600€ baino gutxiagorekin bizi da. Horregatik, eskubide sozialen aldeko euskal herriko pentsionistek Gasteiz eta Iruñeako parlamentuetan LHE (Lege Herri ekimena) aurkeztu dute, bi proposamen zehatzekin:

a) Pentsioentzat erabaki dezatela hilean 1.080 eurotara arte helduko den osagarria, Europako Karta Sozialak dioen bezala, gure ustearen arabera hori baita hemen duintasunez bizitzeko pertsona batek behar duen gutxienekoa.

b) Euskal Autonomia Elkargoan sor dezatela Pentsio, Babes Soziala eta Dependentsia kudeatuko dituen Erakunde Publiko propioa.

Euskal gobernuak proposamena atzera bota badu ere, Iruñean eztabiadan sartuko direla dirudi.

Hala ere, plataformak bai EAEan zein Nafarroan sinadura bilketarekin hastea erabaki du.

Pentsio erreformek, 2011tik kopuruen izozteak, urtero % 0,25eko igoera finkoa BPG ahaztuta, alargun eta umezurtz pentsioen egoera prekariora, pensionisten eros ahalmenean erasoak eta murrizketak asko dira.